

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ERAKUNDEARTEKO
BATZORDEA**

2018ko ABENDUAREN 17ko OHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratuak:

Juan Antonio Fernández jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako idazkari nagusia eta Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordeko presidentea

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria

María Guijarro andrea, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz

Arantza Cañamares andrea, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz

Juan Manuel Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz

Noemí de la Fuente andrea, idazkari gisa, hitzarekin baina botorik gabe

Gainera, presidenteak gonbidatuta bertaratu dira:

Miguel Pérez, Bilboko Udala ordezkatzuz

Silvia Carballo, Donostiako Udala ordezkatzuz

Ezin etorria adierazi dutenak:

Fernando San Martín jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz

Kokalekua:

Lehendakaritza, Vitoria-Gasteiz

Eguna eta ordua: 2018ko abenduaren 17a, 11:15 h

2018ko abenduaren 17ko 11:25ean, Juan Antonio Fernández jaunak, Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordeko presidentek, bertaratuei ongi etorria egin die, eta bertaratuen aurkezpena egin da. Paul Ortegak adierazi du Fernando San Martín ezin izan dela etorri, eta María Guijarro geroxeago iritsiko dela ohartarazi du¹. Jarraian, bilerari hasiera eman zaio, honako gai-zerrenda honekin:

- Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea
- Euskal lankidetzaren publikoaren ataria: balorazioa eta hurrengo urratsak
- Euskal Lankidetzaren Publikoaren jardunaldia: helburuak argitzea eta birprogramatzea
- Aholku-organoen arrazionalizazioa: informazioa eta eztabaida
- Espediente komunen koordinazioa: elkarrizketa
- Euskadiko GGKEen Koordinakundea - Plan Estrategikoa: jokatu beharreko zereginari buruzko elkarrizketa
- PLATFORMAn (Garapenerako Toki eta Eskualde Agintarien Europako Plataforma) parte hartzea: informazioa
- Uraren Programa Triangeluarra: gaia zertan den
- (H)ABIAN 2030: gaia zertan den
- Bestelakoak eta galde-eskeak

1. AURREKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA

Bertaratuek aho batez onartu dute aurreko bilkuraren akta.

2. EUSKAL LANKIDETZA PUBLIKOAREN ATARIA

Sarrera labur bat egin ostean, Juan Antonio Fernández kezkatuta azaldu da oihartzun mediatiko eskasa dela-eta, eta ataria tresna baliagarri bihurtzeko erronka planteatu du. Paul Ortegak adierazi du Aitor Pérezek oso ohar positiboak egiten dituela. Miguel Pérezek izugarritzeko balioa duela uste du, eta Euskadin egiten denaren % 90 baino gehiago erakusten duela. Juan Manuel Balerdik adierazi du horrelako tresna bat daukan eskualde bakarra garela.

¹ Azkenean, gerora gertatutako arrazoien ondorioz, María Guijarro ezin izan da bilerara etorri. Horregatik, behar adinako quorumik ez dagoenez, akta honetan bildutako akordioek, formalki, ez dute juridikoki eskatzen den gehiengoa, baina jaso egin dira funtsezko balioa dutela aintzat hartuta.

Juan Manuel Balerdik parte-hartzea beste udal batzuetara zabaltzeko aukera planteatu du. Erabaki da Hegoari aurrekontua eskatzea 2019an hiru udalerrri gehiagoren datuak txertatzeko esperientzia pilotu gisa, eta Irun, Getxo eta Laudio edo Amurrio iradoki dira.

Juan Manuel Balerdik komunikazioaren garrantzia ere aipatu du, publiko akademikotik haratago iristeko. Paul Ortegak iradoki du Legebiltzarrean, Batzar Nagusietan eta beste erakundeetan aurkezpen bat egitea.

Juan Manuel Balerdik beste kezka bat erantsi du, Saharako mapa okupatuan eta askatuan banatuta agertzeari lotuta. Noemí de la Fuentek adierazi du informatika-enpresari kezka hori helarazi zitzaiola, baina Googleren mapa batean oinarrituta dagoenez ezin daitekeela manipulatu.

3. EUSKAL LANKIDETZA PUBLIKOAREN JARDUNALDIA

Ataria aurkezteko bilkura hausnarketa-jardunaldi zabalago bat bihurtzeko ahalegin ustelaren gaineko gogoeta labur bat egin ondoren, Paul Ortegak berriz ere adierazi du horrelako espazioak sortu behar direla, eta guztion artean egin behar dela. Eta lankidetzaren deszentralizatuaren balio diferentzialaren gaineko hausnarketarako jardunaldi batzuk egiteko aukera planteatu du. Juan Antonio Fernándezek ohartarazi du lankidetzaren mundua oso espezializatua dela, eta beste sektore batzuei zer egiten duen komunikatzeko beharra planteatu du.

Miguel Perezek 2016an egindako foroa ekarri du gogora, bertan hausnarketa (goizeko bilkuran) eta Ellacuría Sariaren entrega (arratsaldean) uztartu zirela erantsiz, eta sariaren prentsa erakartzeko ahalmena azpimarratu du. Eztabaida labur baten ostean, jardunaldia eta sariaren entrega bereiztea erabaki da.

Hauteskunde-datak kontuan hartuz, jardunaldiak 2020ko lehen hiruhilekoan egitea erabaki da, eta talde teknikoari eskatu zaio planteamenduan eta antolamenduan lanean has dadila.

4. AHOLKU-ORGANOEN ARRAZIONALIZAZIOA

Noemí de la Fuentek informazioa eman du Gobernantza Sailak eta Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak bultzatutako aholku-organoen arrazionalizazio-prozesuaren inguruan.

Miguel Pérezek galdetu du prozesu horrek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren gainean izan ditzakeen ondorioen gainean. Noemí de la Fuentek erantzun du azterketan iradoki dutela Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluarekin bat egitea, baina gomendio horri objekzio bat egin zaiola, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua, hiru mailetako erakundeetan eta gizarte zibilaren arteko organo paritarioa delako.

Eztabaida horren harira Paul Ortega kezkatuta azaldu da EUDELek organo horretan dauzkan bi plazak bete gabe uztea gerta litekeelako. Eta hiru udalen artean txandakatzeko aukera iradoki du.

5. ESPEDIENTE KOMUNEN KOORDINAZIOA

Paul Ortegak planteatu du Bizkaiko Foru Aldundiak Mundubat "konglomeratuaren" harira azaldutako kezka, baina beste gauza batzuk ere bai, baterako finantzaketei edo baterako ebaluazioen egokitasunari loturik sortu direnak. Informazioa partekatu beharra eta baterako posizioak hartu beharra adostu dute.

Silvia Carballo kezka horrekin bat etorri da, eta jarraipen-bidaien ostean iritziak sozializatzeko aukera gaineratu du. Talde teknikoaren bileren ohiko gai-zerrendaren puntu bat izan daitekeela iradoki da.

Miguel Pérezek aipatu du kanal informalak funtzionatzen duela. Paul Ortegak proposatu du orokorrena irekitasunez azter daitekeela, eta delikatua, berriz, bi aldeen artean, konfidentzialtasunez.

6. EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEA

Paul Ortegak galdetu du erakunderen bat ba ote dagoen GGKEen Koordinakundea egiten ari den plangintza-prozesuaren gainean. Eta gogora ekarri du haren aurrekontuaren gutxienez % 90 erakundeek finantzatzen dutela.

Miguel Pérezek adierazi du pedagogikoa litzatekeela laguntza hori bisualizatzea, urtean behin baterako ekitaldi bat antolatuz. Eta berari ere logikoa irudituko litzaioke, ildo horretan, bere helburuen eta plangintzaren berri ematea.

Arantza Cañamaresek berdintasun-sailean bizi duen esperientziaren berri eman du: udal eta kuadrillen eta irabazi-asmorik gabeko erakundearen aurrekontuaren % 90etik gora finantzatzen dute, eta modu autonomoan egiten dute, Aldundia plangintzetan sartu gabe. Eta koordinakundearen kasuarekin parekatu du. Adierazi duenez, Arabako Foru Aldundiak Koordinakundearen funtzionamendurako partida bat sartu du hitzarmenean, baina lurralderako ekintza espezifiko batekin (Amurrion, Aldundiko jardun estrategikorako antolatutako ekintza). Koordinakundeak bere plangintza estrategikoa dauka, eta Aldundiak bere helburuak. Elkarrizketa funtsezkoa dela adierazi du, eta Araban Koordinakundearekin aurrera daraman esperientzia oso positiboa dela.

Silvia Carballok dirua publikoa dela adierazi du, eta diru hori eskatzeko legitimitatea duela. Baina erakundeekiko harremana hobeto zaindu beharko luketela uste du.

Juan Antonio Fernández jaunak ñabardura bat egin du: kontua ez da ikuskatzea edo agintzea, kontuak ematea baizik, eta hurrengo hitzarmenak formulatzean bakoitza nola lerrokatzen den ikustea, bat-etortzeak bilatzen ahaleginduz.

Paul Ortegak erantsi duenez, ohikoa da GGKEek beren plangintza-prozesuetan erakundeekin kontrasteak egitea, beste stakeholder batzuen artean. Eta erantsi du

atentzia ematen diola Koordinakundearen prozesu estrategiko batean kontraste hori ez egitea haren lehentasun edo erronken gainean, areago kontuan hartuta ez gaudela konkurrentzia lehiakor baten aurrean, hitzarmen baten aurrean baizik.

Noemí de la Fuentek adierazi du interbentzionistagoa dela ondoren baldintzak jartzea, lehenago hitz egitea baino.

Juan Antonio Fernándezek adierazi du, Koordinakundeari helarazi behar zaiola erakundeetan kezka hori badagoela eta hitz egiteko eta entzuteko irekita gaudela. Paul Ortegak iradoki du, Noemí de la Fuentek, Batzordeko idazkaria den heinean, Koordinakundeari bileran sortutako kezka horren berri ematea.

Denbora-arrazoiak tarteko, ezinezkoa da gainerako gaiei heltzea, eta lan teknikoaren taldean aztertzea iradoki da.

Paulek jakinarazi du 2018ko Ellacuría Sariaren entrega 2019ko otsailaren 4an egingo dela, eguerdiko 12:00etan.

Eta Juan Antonio Fernándezek bilera amaitutzat eman du, 12:37an.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA
GARAPENAREN LANKIDETZARAKO
ERAKUNDEARTEKO BATZORDEKO
IDAZKARIA

JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ
GARAPENAREN LANKIDETZARAKO
ERAKUNDEARTEKO BATZORDEKO
PRESIDENTEA